

Hemen zaude: Hasiera -> Albisteak -> Sonia Pierre-rekin izan dira Hitzezko emakumeak

[ikus](#)
[editatu](#)
[propietateak](#)
[partekatzea](#)
[zutabeen antolaketa](#)
[akzioak](#)
[goiko karpelara gehitu](#)
[egoera argitaratua](#)

Sonia Pierre-rekin izan dira Hitzezko emakumeak

2010/05/13

JENDARTEA

[Historia](#)

Inguruotako landa eremuko emakumearen egoera nolakoa den ikustera etorri dira hainbat herrialdeetako ordezkariak

Dominikar Errepublikako, Haitiko, Mexikoko, Boliviako, Guatemalako eta Indiako zenbait elkarterekin izan ziren maiatzaren 9an Hitzez baserriko emakumeen elkarteak, Debako Lasturren. Gobernu Kanpoko Haurraide Erakundeak gonbidatuta, Euskadiko landa eremuko emakumeen errealitatea (osasuna, bizi-kalitatea...) ezagutzera etorri dira eta Arantzazun aurkeztutako sexu eta ugaltze osasuneko eskubideen Nazioarteko Jardunaldietan ere parte hartu dute, hilaren 5ean, 6an eta 7an.

Bisitak etorritako guztien artean nabarmendu zen emakumearen aldeko lan ugari egin duen Sonia Pierre aktibista dominikarra. Bere lurraldeko gabeziez aritu zen Pierre andrea. Familia eta merkataritza burua emakumea den *bataye* guneetako ur falta izan zuen hizpide eta azken lurrikarak egoera okertu besterik ez duela egin ere gogorarazi zuen.

Hitzezkoak, berriz, inguruotako emakume baserriarren diskriminazioaren eta osasun arazoan berri eman zuen alde batetik; eta elkartzeko eta taldeak sortzeko beharra azpimarratu zuen, bestetik.

Zenbait proposamen ere egin zituzten: besteak beste, nekazari-eskoletan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna ardatz izango duen ikasgaila eman dadin eta gizonaren alboan lanean diharduen emakumezkoak jabetza-eskubideren bat izan dezan, indarrean dagoen legedian aldaketak egin daitezkeen eskatuko da.



Argazkia: Hitzez

Emakume handia

Izen eta eskarmentu handiko emakumea da *Movimiento de Mujeres Dominico* elkarteak sortzaile eta presidente den Sonia Pierre. 1975an, 13 urterekin, hasi zuen giza

eskubideen aldeko borroka, etorkinentzat lan baldintza hobek eskatuz. Abxilotua izan zen orduan eta Dominikar Errepublikako Gobernuak kritikak, enpresarien xaxatzeak eta mehatxuak jaso izan ditu harrezkero.

Sari asko eman dizkiote ordudani: Besteak beste, Giza Eskubideen Robert F. Kennedy sari entzutetsua hartu zuen 2006an. Duela bi hilabete pasatxo, berriz, Emakume adoretuen nazioarteko saria saria jaso zuen Michelle Obamaren eta Hillary Clintonen eskutik. Jatorri haitiarra duten dominikarren diskriminazioaren eta giza eskubideen abusuaren kontrako borrokarengatik hartu zuen azken sari hau, Washingtonen.

